

BESTEON PENTSAMENDUA ENTZUTEKO UKENDUA

Osagiak:

- Everest mendi tontorrean ateratzen den lorea.
- Armiarma baten ileak, Afrikakoa izan behar da.
- Zure lagun onenaren lerdea.
- Hipopotamo beten pentsamendu bat.

Everest mendira igo behar duzu eta tontorrean agertzen den lorea hartu behar duzu. Zuk igo behar duzu mendira, ez zaituzte hartu behar!

Lorea pote batean sartu eta ondoren armiarma bateen ileak sartu. Noski, Afrikara joan beharko duzu eta armiarma ikusitakoan honako hau esan:

Armiarma handia
Sarean harrapatu idia
Eta eman zure ile txikia

Hau esanda ileak emango dizkizu. Gero zure lagun onenaren lerdea sartu beharko duzu. Horretarako ez diozu zertarako den kontatu behar. Zure arazoa da nola lortu!

Azkenik hipopotamo baten pentsamendua lortu behar duzu. Honetarako hipopotamo baten aurrean jarri, potea aurrean ipini eta hau esan behar duzu:

Pentsamendu arrosa
Zu bai zara larrosa

Pentsamedua potean sartuko da. Ziztu bizian nahasten hasi behar da; denak kolore bera hartzen duenean, prest egongo da!

Ukendua nola erabili:

Ukendua emateko ostirala izan behar da eta arratsaldeko seiak. Puntuak ematen dutenean ukendua belarrietatik igurtzi beharko duzu. Ondo igurtzita duzunean, kotoia sartu behar duzu eta ordu erdiz horrela egon. Ordu erdia, pasa eta gero kotoia kendu eta prest izango dituzu belarriak!

Lohizune Amatria